# Xedapen Orokorrak

## JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### 35

426/2005 DEKRETUA, abenduaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoa sortzen duen dekretua aldatzen duena.

Maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoa sortu zen eta, bertan, dekretuaren xedatze-zatian, organoaren funtzioak, osaera eta funtzionamendu-arauak finkatu ziren.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatu zuen eta, V. liburuko I. tituluko I. kapituluko 435.3 artikuluan ezarri zuenez, bulego judizialaren diseinua, neurria eta antolamendua zehazteko eskumena Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarena da. Lege horretako 438.3 artikuluan, halaber, bateratutako prozesu-zerbitzuak diseinatu, sortu eta antolatzeko eskumena aitortzen zaio.

II. tituluko II. kapituluan, bestalde, idazkari judizialen funtzioei dagokienez, 452.3 artikuluak honela dio: idazkari judizialek laguntza emango diete eskumen bereganatuak dituzten autonomia erkidegoei, erkidegoek langile eta baliabide arloan dituzten egitekoak eraginkorrak izan daitezen; eta, horretarako, goragoko agintariek ematen dizkieten jarraibideak bete beharko dituzte. Koordinazioa hobeto egiteko, idazkari judizialen eta eskumen bereganatuak dituzten autonomia erkidegoetako ordezkarien arteko Bitariko batzordeak osatu ahal izango dira, bakoitzari dagokion lurralde eremuan. Hori, funtsean, lehen aipatutako maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuan jasotako Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailaren ekimen aitzindaria Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren artikuluetara eramatea besterik ez da.

Bestalde, 457. artikuluak, honela dio: idazkari judizialek Bulego Judizialeko langileak zuzenduko dituzte teknika- eta prozesu-arloei dagokienez, haien jarduna antolatuko dute eta bidezko iritzitako agindu eta jarraibideak emango dituzte funtzio hori betetzeko.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoa indarrean sartzeak eta urte hauetako funtzionamenduan lortutako eskarmentuak maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuan aurreikusitako lankidetzarako organoa arautu beharra dakar.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### 35

DECRETO 426/2005, de 27 de diciembre, de modificación del Decreto por el que se crea el órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi.

Por Decreto 123/1997, de 27 de mayo, se creó el órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi fijando, en su parte dispositiva, sus funciones, composición y normas de funcionamiento.

La Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, de modificación de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial, en su Libro V, en su Título I, Capítulo I, artículo 435.3, establece la competencia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco para determinar el diseño, la dimensión y organización de la oficina judicial. A su vez en el artículo 438.3 le atribuye la competencia para el diseño, creación y organizar los servicios comunes procesales.

A su vez, en el Título II, Capítulo II a propósito de las funciones de los Secretarios Judiciales dispone en el artículo 452.3 que «Los Secretarios Judiciales colaborarán con las comunidades autónomas con competencias asumidas para la efectividad de las funciones que éstas ostentan en materia de medios personales y materiales, dando cumplimiento a las instrucciones que a tal efecto reciban de sus superiores jerárquicos. Para una mejor coordinación podrán constituirse Comisiones Mixtas de Secretarios Judiciales y representantes de las comunidades autónomas con competencias asumidas, en sus respectivos ámbitos territoriales», lo que significa elevar al articulado de la Ley Orgánica del Poder Judicial la iniciativa pionera del Departamento de Justicia del Gobierno Vasco plasmada en el Decreto 123/1997, de 27 de mayo anteriormente mencionado.

Asimismo el artículo 457 establece que «Los Secretarios Judiciales dirigirán en el aspecto técnico-procesal al personal integrante de la Oficina judicial, ordenando su actividad e impartiendo las órdenes e instrucciones que estime pertinentes en el ejercicio de esta función».

La entrada en vigor de la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre, así como la experiencia práctica de funcionamiento de estos años, conlleva la necesidad de adecuar la regulación del órgano de colaboración previsto en el Decreto 123/1997, de 27 de mayo.

Ondorioz, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko abenduaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoa sortzen duen maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuaren 2. artikuluko a) eta d) idatz-zatiei idazkera berria ematen zaie eta, aurrerantzean, honela geratuko dira:

«2. artikulua.– Egitekoak.

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoak, dagokien eskumen-eremuaren barruan eta beste administrazio edo instituzioei dagokien eskumenen aurka ez badoaz, honako egitekoak izango ditu:

a) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoek eskatzen dituzten proiektu eta helburuei buruzko irizpena ematea, Botere Judizialari buruzko Lege Organikoak aitortzen dizkieten eskumenez baliatuz. Aztertu beharreko gaiak honakoak dira:

– Bulego judizialaren diseinua, neurria eta antolamendua, lan-prozedura eta –metodoen kalitatea kudeatzeko sistemen ezarpenean arreta berezia jarriz.

– Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren VI. liburuak aipatzen duen langileen estatutu juridikoa.

– Justizia administrazioak euskalduntzea.

d) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari idazkari judizialentzako heziketa-programetarako edukiak proposatzea, Foru Eskubideari eta euskalduntzeari buruzkoak barne.»

***Bigarren artikulua.***– Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoa sortzen duen maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuaren 3. artikuluari idazkera berria ematen zaio eta, aurrerantzean, honela geratuko da:

«3. artikulua.– Osaera.

Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoko kideak honakoak izango dira:

a) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren izenean:

– Justizia sailburuordea; organoaren lehendakari arituko da.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión de 27 de diciembre de 2005,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se da nueva redacción a los apartados a) y d) del artículo 2 del Decreto 123/1997, de 27 de mayo, por el que se crea el órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi, que quedan redactados de la siguiente manera:

«Artículo 2.– Funciones.

El Órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi, dentro de su ámbito de competencia y sin perjuicio de las competencias que correspondan a otras Administraciones o Instituciones, ejercerá las siguientes funciones:

a) Informar los proyectos y objetivos que le sometan los órganos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en ejercicio de las competencias atribuidas por la Ley Orgánica del Poder Judicial, en relación, entre otras, con las siguientes materias:

– Diseño, dimensión y organización de la oficina judicial, con especial referencia al establecimiento de sistemas de gestión de calidad en los procedimientos y métodos de trabajo.

– Estatuto jurídico del personal a que se refiere el Libro VI de la citada Ley Orgánica del Poder Judicial.

– Euskaldunización de la Administración de Justicia.

d) Proponer al Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social contenidos sobre programas de formación dirigidos a los Secretarios Judiciales, incluidos los referidos al Derecho Foral y Euskaldunización.»

***Artículo segundo.***– Se da nueva redacción al artículo 3 del Decreto 123/1997, de 27 de mayo, por el que se crea el órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

«Artículo 3.– Composición.

El Órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi estará compuesto por:

a) En representación del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social:

– El Viceconsejero o la Viceconsejera de Justicia, que actuará como Presidente del Órgano.

– Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendaria.
– Giza Baliabideen zuzendaria.

– Eusko Jaurlaritzako Justizia Administrazioaren Harremanetarako Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat; idazkari arituko da.

b) Idazkaritza Judizialaren izenean:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu idazkaria.
– Lurralde historiko bakoitzeko idazkari koordinatzaileak.
– Idazkari judizialen elkarte bakoitzeko ordezkari bat. Ordezkari horiek Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko dute destinoa ezinbestean.»

***Hirugarren artikulua.–*** Eusko Jaurlaritzaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duen Idazkaritza Judizialaren arteko lankidetzarako organoa sortzen duen maiatzaren 27ko 123/1997 Dekretuaren 4. artikuluaren 2. paragrafoari idazkera berria ematen zaio eta, aurrerantzean, honela geratuko da:

> «2.– Lehendakariak, bidezkotzat jotzen duenean, lankidetzarako organoaren ohiko eta ezohiko bilkuretarako deia egingo du. Modu berean jokatu beharko du, halaber, Gobernuko idazkariak edo kideen gehiengoak arrazoiak emanez proposatzen badiote.
>
> Lehendakariak Saileko edo Eusko Jaurlaritzako beste Sailetako kargudunei edo teknikariei dei ahal izango die bilkuretara agertzeko, eta Gobernuko idazkariak, bere aldetik, berdin jokatu ahal izango du beste idazkari judizialekiko. Horretaz gain, bidezko irizten badiote, talde lanak sortu ahal izango dituzte gai zehatzei buruzko txostenak edo proposamenak aztertu eta egin ahal izateko.»

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko abenduaren 27an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.

– El Director o la Directora de Relaciones con la Administración de Justicia.
– El Director o la Directora de Recursos Humanos.

– Una persona de nivel técnico adscrita a la Dirección de Relaciones con la Administración de Justicia del Gobierno Vasco, que actuará como Secretario.

b) En representación del Secretariado Judicial:

– El Secretario o la Secretaria de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
– Los Secretarios o las Secretarias Coordinadores de cada Territorio Histórico.
– Un representante de cada una de las asociaciones del colectivo de Secretarios Judiciales. Dichos representantes han de reunir el requisito de estar destinados en Euskadi.»

***Artículo tercero.–*** Se modifica la redacción del párrafo 2 del artículo 4 del Decreto 123/1997, de 27 de mayo, por el que se crea el órgano de colaboración entre el Gobierno Vasco y el Secretariado Judicial destinado en Euskadi, que queda redactado de la siguiente manera:

> «2.– El Presidente o la Presidenta acordará la convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias del órgano de colaboración siempre que lo estime conveniente y, en todo caso, cuando así se lo solicite el Secretario o la Secretaria de Gobierno o la mayoría de sus miembros mediante propuesta razonada.
>
> En función de los temas a tratar el Presidente o la Presidenta podrá convocar a sus reuniones a personal técnico o a cargos del Departamento o de otros Departamentos del Gobierno Vasco, y el Secretario o la Secretaria de Gobierno, en iguales circunstancias, a otros Secretarios o Secretarias Judiciales, y, si lo estimaran oportuno, podrán proponer la creación de Grupos de Trabajo para el estudio y elaboración de informes o propuestas relativas a cuestiones específicas.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 27 de diciembre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZCÁRRAGA RODERO.